


Euskal AEKo biztanleria sakabanatu egiten da eta hiru udalerritatik hiruk biztanle hazkundera izan du 2001-2006 urteen artean

Biztanleria hazi, atzerritarrak hirukoiztu eta haur kopurua goraka

Euskal AEko biztanleak 2.129.339 pertsona ziren 2006.ean, Eustatek egindako 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera. 2001-2006 urteen artean biztanleriaren hazkunde orokorra eta joera-aldaketa daude, laurogeiko urteetan hasitako biztanleriaren murrizketa atzean utzita. 2001ean igartzen zen biztanleriaren bizkortzea baieztatu egiten da.

Arabak %6,8ko hazkundera izan du eta 1996-2001 urteetako igoerari eutsi dio. Hogei urteetan lehenengo aldiz, Gipuzkoan (%1,9) eta Bizkaian (%1,3) biztanleria hazi egin da. Euskal AEko biztanleriaren banaketa apenas aldatzen den, halere: Arabak %14,2 du, 305.822 biztanle; Gipuzkoak %32,2, 686.665; Bizkaiak %53,4, 1.136.852.

Biztanleriaren bilakaera eskualdeka 1996-2006 (%)



Iturria: EUSTAT

Eskualdeka, egoera indartu egiten da 2001aren aldean. Debagoiena %(-1,7) eta Debabarrena (%-0,7) dira biztanleak galtzen dituzten bakarrak, aurreko bosturtekoan baino gutxiago. Hazkunderik handienak, berriz ere, Arabako Ibarak %17,8, Gorbeia Inguruak (%16,9), Arabako Errioxak %12,4 eta Plentzia-Mungiak %12; den-denek aise Euskal AEko batez besteko hazkunderaren (%2,2) gainetik.

Lau udalerritatik hirutan hazi da biztanle kopurua, baina batez ere txikietan, proportzionalki eta modu orokorragoan. Biztanleriak hedatu eta hiriguneetatik kanpoko dentsitate txikiko espazioetara jo du. Horixe gertatu da gehien hazi diren bi udalerrietan: Erribera Beitian, km karratuko 6,1 biztanle eta %41,5eko hazkundera; eta Zambranan 16,9 eta %31,5.

10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan %5,2 da hazkundera eta 212 udalerrietatik 171tan gertatu da, ia %81ean. 10.000-40.000 biztanle arteko 30 udalerrietan 18k hazkundera izan dute, baina txikiagoa da (%1,4). 40.000 baino gehiago 6k dituzte eta bakarrik Irun (%6,2) eta Barakaldo (%2) hazi dira. Hiriburuei dagokienez, 2001aren aldean, apalki hazi dira Bilbo (%0,3) eta Donostia (%1,2). Gasteizko hazkundera (%5,9) txikiagoa da aurreko bosturtekoa (%8,7) baino.

Udalerri jendetsuenen artean bada multzo bat, betidanik industriarekin erlazionatua, zeinak beherantz jarraitzen baitu. Hauexek dira: Bizkaian, Sestao (%-7,4), Portugalete (%-5,8), Basauri (%-4,2) eta Ermua (%-3,8); Gipuzkoan, Arrasate (%-5,7), Soraluze (%-4,4) eta Eibar (%-3,6); Araban Laudio(%-3).

Biztanle gazte gehiago eta zahartzea egonkortu

2001-2006 artean urtebete baino gazteagoen hazkundera (%16,5) nabarmentzen da, eta 1-4 urte bitartekoena, %13,6. 65 urte eta gehiagoko biztanleriak berdin dirau, zertxobait gehiago dira gazteak (%18,6) baino. Biztanleria potentzialki aktiboa %65 da, aurreko bosturtekoan bezalaxe.

Ez dago alde handirik herrialdeen artean. Bizkaiak du zaharrik gehien (%19,2k 65 urte baino gehiago dituzte); Gipuzkoak gazterik gehien (%17,3k 20 urte baino gutxiago) eta Arabak du potentzialki aktiboen ehunekorik handiena (%66,6).

2001-2006 aldian boliviarrak eta errumaniar talde garrantzitsuak etorri eta lehendik zeuden nazionalitateak indartu egin dira

2001-2006 aldian 95.313 atzerritar genituen, Euskal AEko %4,5, 2001ean 31.167 zirelarik. Talderik jendetsuena lan-adinean dator, 20-40 urte bitarte. Gehienak (%43,8) Hego Amerikatik datoz, eta gehien bat emakumeak dira, Kolonbia, Bolivia eta Ekuadorrekoak. Bigarren multzoa europarrak dira (%27,8), batez ere Errumania eta Portugalgo gizonak.

Sei nazionalitate jendetsuenetatik lau baziren 2001ean. Hazkunderik handiena boliviarrak da: 125 pertsona 2001ean eta 8.961 2006an. %72 Bilbo Handian. Errumaniarrak 582tik 7.934ra pasatu dira eta sakabanatuago daude. Arabak du etorkin ehunekorik handiena (%6,3), eta bertako udalerrien artean Mañuetak (%14) eta Lezak (%11,3) .

Ohar metodologikoa:

Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika egiteko erregistro administratiboak erabili dira iturri nagusi gisa, ohiko informazio bilketa handiak egin gabe, Metodologia aldaketa garrantzitsu honen aitzindari dira Suedia, Finlandia eta Herbehereetako estatistika institutuak dira, antzeko metodoak darabiltzatelarik. Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikaren erreferentzia data 2006ko azaroaren 1a da

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Vázquez

Tlf:+34-945-01 75 34 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es